Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

PRESKRIPZIO TEKNIKO PARTIKULARREN AGIRIA

I. KONTRATUAREN XEDEA ETA ZERBITZUAREN HELBURUA

Euskara hobetzeko ikastaroak (Hobekuntza Ikastaroak) UPV/EHUko Teknikarientzat eta Kudeaketako eta Administrazio eta Zerbitzuetako Langileentzat, Araba, Bizkai eta Gipuzkoako campusetan, urtarriletik ekainera.

II. ZERBITZUAREN EZAUGARRIAK

Euskara hobetzeko ikastaroak hiru mailatan antolatuko dira (oinarrizkoa, ertaina eta aurreratua), administrazioaren hizkuntza eskakizunen eta Europako Erreferentzia Esparru Bateratuaren deskribatzaileen arabera. Ikastaro bakoitza 42 ordukoa izango da, ordu kopurua aldatu ahal izango bada ere, hainbat arrazoirengatik (adibidez, jaiegunekin bat egitea). Plaza kopurua, taldeak eta banaketa geografikoa ere alda daitezke, eskaeren eta ikasleen profilaren arabera. Hau da, gerta daiteke campusen batean ikastaroren bat ez ematea.

Euskara, Kultura eta Nazioartekotzearen arloko Errektoreordetzak erabaki ahal izango du ikastaroren bat bertan behera uztea edo aldatzea, behar bezala justifikatutako arrazoi objektiboengatik.

Hasierako plangintza:

Maila	Tokia	Gutxieneko HE	Helburua
"Euskarari beldurra kenduz, ahozkoan lehen urratsak"	Gasteiz, Donostia, Bilbo eta Leioa	1HE	2HE lortzear dauden TEKZELeko langileak. Euskara lan hizkuntza gisa, publikoaren arretan eta gizarte harremanetan erabiltzeko beldurra gainditzen laguntzea.
"Oinarrizko jarduna ahozkoan"	Gasteiz, Donostia, Bilbo eta Leioa	2HE	2HE duten TEKAZELeko langileak. Euskara naturaltasunez erabiltzen laguntzea. Euskarazko trebetasun komunikatiboak praktikatzeko aukerak sortzea.
"Administrazioan ahoz komunikatzeko gaitasuna lantzen"	Gasteiz, Donostia, Bilbo eta Leioa	3HE	3HE duten TEKAZELeko langileak (lehentasuna izango dute 4HE dutenen aurrean). Testu sorkuntzari, kohesioari eta diskurtsoaren koherentziari loturiko hizkuntza baliabideak lantzea.

			Idatzizko eta ahozko testu komunikatibo antolatuak eta egituratuak sortzea. Berezko aho adierazpena lantzea, hitz jarioa, lan testuinguruetan eta testuinguru pertsonaletan.

Irakaskuntza proiektua: Kontratistak bere eskaintzan proposatutakoa.

Ordutegia:

Ikastaro bakoitzak 42 orduko iraupena izango du eta 21 astetan emango da (astean egun bat). Klase bakoitza bi ordukoa izango da. Asteko eguna eta ordutegi zehatza behar besteko aurrerapenaz jakinaraziko zaizkio enpresari, ikastaroak hasi baino 20 egun natural lehenago gutxienez. Hala ere, egutegia eta ordu kopurua aldatu ahal izango dira, hainbat arrazoirengatik (adibidez, jaiegunekin bat egitea).

Ikasleak:

Euskara, Kultura eta Nazioartekotzearen arloko Errektoreordetzak ikasturte bakoitzeko taldeak osatuko ditu, UPV/EHUko administrazio eta zerbitzuetako langileentzako ikastaroen deialdia ebatzi ondoren.

Taldeek izango dituzte gutxienez sei eta gehienez 15 ikasle. Behin taldeak osatuta, klaseak hasi aurretik bajaren bat badago eta horrek ikastaroa emateko gutxieneko ikasle kopuruari eragiten badio, Euskara, Kultura eta Nazioartekotzearen arloko Errektoreordetzak egoera baloratu eta zer egin erabakiko du, eta kontratistari jakinaraziko dio erabakia.

Ikastaroak emateko lekua:

Araba, Bizkai eta Gipuzkoako campusetan, betiere taldea osatzen bada. UPV/EHUk erabakiko du eskolak zer ikasgelatan eman, eta kontratistari jakinaraziko dio kontratua egin ondoren, ikastaroak hasi baino 20 egun natural lehenago gutxienez.

Irakasleak:

a)Enpresa kontratistak arduradun/irakasle bat izendatuko du ikastaro bakoitzeko, osatutako taldearen edukien garapenaz arduratuko dena.

b)Kontratua izenpetu ondoren, ikastaroa hasi baino 10 egun natural lehenago gutxienez, kontratistak kontratuaren arduradunari bidaliko dizkio irakasle taldearen identifikazio datuak. Arduradunak 5 egun baliodun izango ditu oniritzia emateko.

• Ahalik eta lasterren jakinaraziko zaio Euskararen arloko Errektoreordetzako Hizkuntza Plangintzako teknikariari irakasle taldean eginiko edozein aldaketa (puntuala edo behin betikoa) edo ikastaroetan edota ikasleengan eragina izan dezakeen edozein gorabehera edo gertakari.

•Edozein arrazoi medio irakasleak klaseetara joaterik ez badu: irakasleak berak, ikasleekin ados jarrita, klaseak errekuperatzeko egunak finkatuko ditu; edo bestela, kontratistak ordezko irakasle bat jarriko du, ohiko ordutegian eskolak emateaz arduratuko dena.

Zerbitzua derrigorrez HABEk homologatutako euskaltegi batek eman beharko duenez, zerbitzua eskainiko duten pertsonen lan-baldintzak izango dira helduen euskalduntze ikastaroak emateko ikastegi homologatuen araudiak ezarritakoak, haien izaera juridikoaren eta sarearen arabera (sare publikoa eta sare pribatua).

III. KONTUAN HARTZEKO BESTE GAI BATZUK

a) Enpresak hartuko ditu bere gain irakasleen joan-etorrien gastuak.

b)Kudeaketa eta solaskidetza:

UPV/EHUko Euskara, Kultura eta Nazioartekotzearen arloko Errektoreordetzak kudeatuko ditu ikastaroak.

Kontratistak, kontratua formalizatu ondoren, koordinazioaz arduratuko den pertsona bat izendatuko du, gehienez ere 20 egun balioduneko epean. Pertsona hori arduratuko da harremanetan egoteaz aipatutako errektoreordetzako Hizkuntza Plangintzako teknikariarekin.

c)Kontratista arduratuko da ikastaroak emateko erabiliko diren UPV/EHUren jabetzako ikasgelen eta azpiegituren erabilera egokiaz, eta edozein kalte edo galera leheneratu egin beharko du, modu desegokian erabiltzearen ondorio izan bada.

d)Enpresak izan behar ditu:

-Online ikastaroetan edo ikastaro erdipresentzialetan, online ikastaroa emango duten pertsonek beren lana egin ahal izateko lanerako leku bat.

-Kontsultak jasotzeko posta kontu bat.

-Ordenagailua(k) Interneteko konexioarekin, eta posta elektronikoa eta online tutoretzak (bideo-deiak) kudeatzeko hardwarea/softwarea.

e)Irakasleek kontrolatuko dute ikasleen bertaratzea, eta edozein gorabeheraren berri emango diote Hizkuntza Plangintzako teknikariari, beharrezkoa izanez gero. Ikasleen bertaratze kontrola eta gorabeherak lau astean behin entregatuko dira.

f)Ikasturte bakoitza amaitzean, kontratistak memoria labur bat aurkeztuko du, eginiko ikastaro eta maila bakoitzari buruzkoa, bai eta ikasleen amaierako ebaluazioa ere. Egoki irizten badio, kontratistak memoria horretan sartu ahal izango ditu ikastaroak hobetzeko proposamenak, ikasleei eginiko gogobetetze inkestetan edo jasotako feedbackean oinarrituta.

g)UPV/EHUk aldaketa txikiak proposatu ahal izango dizkio kontratistari, ikastaroen antolakuntzan edo irakaskuntzan bertan egitekoak, irakaskuntzaren kalitatea etengabe hobetzeko konpromisoa sustatze aldera. Aldaketa horiek adostuko dira enpresak kontratuaren arduradun izendatutako pertsonarekin.

Sinadura elektronikoaren data,

34086833M MARIA JUNCAL GUTIERREZ (R: Q4818001B)

Firmado digitalmente por 34086833M MARIA JUNCAL GUTIERREZ (R: Q4818001B)
Fecha: 2024.10.22 08:31:07 +02'00'

M. Juncal Gutierrez Mangado

Euskara, Kultura eta Nazioartekotzearen arloko errektoreordea

Euskara, Kultura eta Nazioartekotzearen arloko errektoreordetza